

Mantible

A r a b a k o E r r i o x a k o I K A E u s k a l t e g i a

El euskaltegi IKA de Rioja Alavesa y Viana además de dar clases de euskera a los/as adultos/as, realiza actividades destinadas a favorecer el conocimiento de la cultura euskaldun y el uso del euskera. Esta publicación que tienes entre manos quiere hacer de puente para todos/as aquellos/as que todavía no se han acercado al euskera o apenas lo conocen. Para ello contaremos con la ayuda de aquellos/as que han aprendido el idioma o lo están haciendo ahora. Esperamos que disfrutéis del contenido y si os animáis a aprenderlo no dudéis en acudir al euskaltegi IKA.

Eta barrualdean...



■ **Esteban Urkiaga, "Lauaxeta"**, fue apresado por las tropas franquistas y llevado a Gasteiz. Le aplicaron la pena de muerte y fue fusilado. Escribió unas palabras conmovedoras mientras esperaba la muerte. **p. 7**

"Nik, Kakuetakoa Arroilla"
4., 5. orr.



■ **Aintzane:** "Bi alabak zoriondu behar ditut euskaraz hain ondo egiteagatik eta nirekin euskaraz egiten saiatzeagatik" **2. or.**

campaña de matriculación 2012-2013

El Euskaltegi ya ha comenzado la campaña de matriculación para el presente curso 2012-2013. Desde el 10 de septiembre y hasta el 21 se organizan reuniones en varios pueblos de Rioja Alavesa, Logroño, Viana y Mendavia. Comenzamos en **Mendavia** el día 10 de septiembre y la última reunión será en **Samaniego** el día 21. Los horarios para dichas reuniones oscilan entre las 19:00 y las 20:00 horas. También podéis llamarnos por teléfono o escribir un mensaje a nuestro correo para cualquier consulta. En nuestra contraportada disponéis de información más detallada. **p. 8**

Oiongo IKA euskaltegia
Diputazio kalea, 32
01320 Oion
945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia
Berberana zeharkalea, 5
01300 Biasteri
945 621 055

<http://www.ikanet.net>
errioxa@ikanet.net

solasean.....

Aintzane Prieto Uriarte

Euskaltegian apuntatu nintzen nire Euskara hobetzeko eta 2. perfila ateratzeko asmoarekin. Bi helburuak lortu ditut.

Como es costumbre en este apartado, conversamos con amigos/as sobre el euskera. En esta ocasión hemos hablado con Aintzane. Esta gasteiztarra de 34 años y madre de dos hijas, hace ya un tiempo que vive y trabaja en Labastida; de hecho estudió en la ikastola de esta localidad. Posteriormente en la ikastola Assa de Lapuebla de Labarca, y más tarde fue a la Escuela Superior de Gestión y Administración de Empresas de Elgoibar. Comenzó a trabajar en la empresa de servicios turísticos "Thabuca" de Labastida; ahora trabaja en la tienda de Bodegas Solagüen, también de ésta localidad.



¿Por qué te apuntaste en el euskaltegi?
Me apunté con la intención de obtener el 2º perfil y mejorar mi euskera. He conseguido los dos objetivos.

¿Encontraste lo que esperabas?
La verdad es que he encontrado lo que buscaba. He recordado cosas que había olvidado, en lo que respecta a la gramática, sobre todo.

¿Qué hacéis en clase?
De todo: gramática, juegos, hablar, escuchar, leer, escribir... En clase es muy importante ser participativo, es como se aprende.

Tienes dos hijas; ¿Crees que influye en ellas el hecho de que estés aprendiendo o, en este caso, mejorando tu euskera?

Si, tengo dos hijas, de seis y tres años. Las dos están en la ikastola de Labastida y hablan muy bien euskera. La pequeña pide que se le hable en euskera y ella se esfuerza un montón.



Tengo que felicitar a mis dos hijas, por hablar tan bien y por intentar hablar euskera conmigo.

¿Hablas euskera fuera de clase?
Es difícil, pero cada vez hablo más; pues, además de con mis hijas, si sé que alguien sabe euskera le hablo en euskera.

¿Cómo ves la situación del euskera en Labastida?
Creo que la situación es cada vez mejor, los que sabemos euskera intentamos hablarlo y también transmitirlo a nuestros/as hijos/as.

Habría que animar a la gente a aprender euskera. A fin de cuentas, es nuestro idioma, si no lo aprendemos y apoyamos nosotros...

¿Qué le dirías a quien no aprende euskera por creer que es muy difícil?
Si no lo intentas de verdad, no aprenderas nunca y no sabrás si es fácil o difícil. En Labastida tenemos varios ejemplos. Hoy en día está estudiando en el euskaltegi una chica de Zaragoza, y ya habla muy bien. Con su hijo se comunica íntegramente en euskera. Admirable.

Es un idioma peculiar, bonito... ¡maravilloso! Es fantástico asimilar el euskera y transmitirlo. Animo desde aquí a la gente a que se apunte al euskaltegi y aprenda.

zuek ere euskaraz.....

■ Aquí encontrarás conversaciones sencillas que se nos plantean todos los días, bien con los/as amigos/as, la familia, comprando en la tienda... Ya que en el anterior número de **Mantible** aprendimos a expresar nuestras intenciones o planes (entonces, a dónde ir de vacaciones); ahora imaginamos que Pedro y Eva (los anteriores protagonistas) han vuelto, y que conversan sobre las vacaciones. Ahora nos hará falta otra herramienta: **un tipo de pasado**. Como son acciones ya lejanas en el tiempo, utilizaremos el **pretérito indefinido (lehenaldi mugagabea)**. No añadiremos nada al verbo principal (recordad que para el futuro sí lo hacíamos); pero como siempre colocaremos al lado un verbo auxiliar, pero en ésta ocasión en pasado: **nintzen (IZAN) nuen (UKAN)**.

OPORRAK HIZPIDE(charlando sobre las vacaciones)



- Kaixo, Pedro! Zer moduz oporrak? (*¡Hola, Pedro! ¿Qué tal las vacaciones?*)
- Aupa, Eva! Ederki. (*¡Aupa, Eva! Muy bien.*)
- Nora **joan zinen?** (*¿A dónde fuiste?*)
- Azkenean, Italiara **joan ginen** hegazkinez. (*Al final fuimos a Italia em avión.*)
- Pisako dorrea **ikusi al zenuten?** (*¿Visteis la torre de Pisa?*)
- Bai horixe! Oso ederra da; gainera, itzel **pasatu genuen** bertan. (*¡Por supuesto! Es muy hermosa; además, allí lo pasamos de maravilla.*)

además, allí lo pasamos de maravilla.)

- Neu ere bertan **izan nintzen**, baina orain dela bost urte. Eta gero zer **egin zenuten?** (*Yo también estuve allí, pero hace cinco años. ¿Y luego qué hicisteis?*)
- Bada, handik Cecina herrira **joan ginen**; Livornoko probintzian dago. (*Pues, de allí fuimos a Cecina; está en la provincia de Livorno.*)
- Cecina? Nik badut bertako lagun bat. (*¿Cecina? Yo tengo una amiga de allí.*)
- Badakit, berarekin **hitz egin genuen** eta... (*Ya lo sé, y es que hablamos con ella...*)
- Ez da izango! (*¡No me digas!*)

verbos auxiliares

IZAN (ser)			UKAN (tener)		
pronombre	presente	pasado	pronombre	presente	pasado
NI	NAIZ	NINTZEN	NIK	D(it)UT	N(it)UEN
HI	HAIZ	HINTZEN	HIK	D(it)UK/N	H(it)UEN
HURA	DA	ZEN	HARK	D(it)U	Z(it)UEN
GU	GARA	GINEN	GUK	D(it)UGU	GEN(it)UEN
ZU	ZARA	ZINEN	ZUK	D(it)UZU	ZEN(it)UEN
ZUEK	ZARETE	ZINETEN	ZUEK	D(it)UZUE	ZEN(it)U(z)TEN
HAIEK	DIRA	ZIREN	HAIEK	D(it)U(z)TE	Z(it)U(z)TEN

HIZTEGIA

- estar **egon** • andar **ibili** • venir **etorri** • ir **joan** • ikusi **ver** • comprar **erosi** • alquilar **alokatu** • nadar **igeri egin** • tomar el sol **eguzkia hartu** • jugar(niños/as) **jolastu** • almorzar **hamaiketakoa hartu** • cansar **nekatu** • dormir **lo egin** • viajar **bidaiatu** • llevar **eraman** • subir **igo** • bajar **jaitsi** • desayunar **gosaldu** • comer **bazkaldu** • cenar **afaldu** • comer (general) **jan** • acercar **hurbildu** • pagar **ordaindu** • entrar/meter **sartu** • salir/sacar **atera** • aburrir **aspertu** • oír **entzun** • sorprender **harritu** • conversar **solas egin** •

euskarak lagun.....

■ En los números de **Mantible** de septiembre, para llevar a cabo este apartado, pedimos la colaboración de alumnos/as y amigos/as. En esta ocasión les hemos pedido que recomienden a alguien que no es de Euskal Herria **su lugar favorito** o que tengan en más estima. Nos han llegado muchas propuestas, pero por razones de espacio hemos elegido las que tenéis a continuación. **Eskerrik asko guztio!**



ARAIA

Arabako herri bat da, eta Aratz mendiaren ondoan dago. Leku lasaia da, eta handik zerurik politena ikusten da. Neguan Aratz elurtuta dago ia beti, eta han ibiltzea ederra da; askatasuna sentitu ahal duzu. *Es un pueblo de Álava que está al lado del monte Aratz. Es un lugar tranquilo desde donde se puede ver el cielo más bonito. En invierno Aratz suele estar nevado y andar allí es una gozada, porque te permite sentir la libertad.*



URDAIBAI

Inguruaren aldetik, baina gertu dauden herriak eta bestelako lekuak ahaztu gabe: Mundaka, Bermeo, Gernika, Omako Basoa, Santimamiñeko kobazuloak, Gaztelugatxe... *A nivel de medio ambiente; pero sin olvidar localidades y lugares próximos: Mundaka, Bermeo, Gernika, el Bosque de Oma, las Cuevas de Santimamiñe, San Juan de Gaztelugatxe...*



SANTA CASILDA PARKEA

Nik pentsatzen dut leku polita dela, atsedeen-lekua eta oso koloretsua; oso zuhaitz zaharrak daude eta iturriak. Pergolan ekitaldiak egiten dituzte, eta nik George Moustaki ikusi nuen bertan. *Creo que es un lugar muy bonito y bueno para descansar; tiene mucho colorido, los árboles son muy viejos y también tiene bonitas fuentes. En la Pérgola realizan actuaciones, y yo ví allí a George Moustaki.*



TXINGUDIKO BADIA

Hondarribi, Irun eta Hendaia herriek osatutako hiri handian kokaturik. Kantauri itsasoko hondartzarik ederrenean, non Pirinioak bainatzen diren. Toki honek historia handia du; paisaia zoragarriak, gastronomia paregabea, marinel-giroa, euskal jai dibertigarriak, beroa eta festa. *En la gran ciudad formada por Hondarribi-Irún-Hendaye. Ese txoko en el que los Pirineos se bañan en la mejor playa del mar Cantábrico. Un lugar con una historia milenaria, unos paisajes bellísimos, gastronomía excelente, ambiente marineru muy jatorra, divertidas euskal jaiak, todo el verano de sol y fiesta.*



LEZE. EGINO (ARABA)

Kobazuloaren irteera. Tokia ikusteko pixka bat ibili behar da, eta ibaia jaitsi ere bai. Ilargia kobazuloaren ondoko ibaian islatzen denean, sentsazio magikoa sortzen du. *La salida de la cueva. Para ver el lugar hay que caminar un rato, y también bajar un río. Ver la luna reflejada en el río al lado de la cueva, crea una sensación mágica.*



ZUMARAKO ANTIO BASELIZA. GIPUZKOA

Harriz eta zurez eginiko eliza erromaniko-gotikoa da. XII-XIII. mendekoa. Beloki mendiaren hego-magalean dago, eta Izazpi mendira igotzeko ohiko abiapuntua da. Uztailaren 2an erromeria izan ohi da. *Ermita gotico-romana construída de piedra y madera, siglos XII-XIII. Se halla en la vertiente sur del monte Beloki; la ermita es punto de salida habitual para la ascensión al monte Izazpi. El 2 de Julio se celebra una romería.*



HAIZERROTA. BIZKAIA

Leku zoragarria da, eta dena dauka: itsasoa, itsas-labarrak, mendia, etxe politak... *Es un lugar espectacular, y tiene de todo: mar, acantilados, monte, casas bonitas...*

SAN JUAN DE GAZTELUGATXE

baseliza Bizkaiko kostaldean dago. San Joan bezperan kanpakiak jotzeko ohitura izaten da. Baselizara heltzeko eskaillera pila igo behar da, baina ikuspegia merezi du. *En la costa vizcaína, en medio del mar, está la ermita. La víspera de San Juan hay costumbre de tocar las campanas. Para llegar hasta la ermita hay que subir muchas escaleras, pero la vista merece el esfuerzo.*



euskarak lagun.....



Leire eta Irati



Sandra



Imanol

GOIURIKO URJAUZIA

Arabian daukagun altxorretariko bat. 100 metro baino gehiagoko altuera duen Goiuriko urjauzia ikusgarria da, eta bertara gerturatzea merezi du. Udan ez du ia urik; hortaz, onena, udaberri edo udazkenean gerturatzea. Ingurune paregabean kokatuta dago. *Un tesoro que tenemos en Álava. La cascada de Gujuli tiene más de 100 m. de caída. En verano apenas hay agua, por eso, lo mejor es ir en primavera o en otoño.*

URBASA

Nire ustez Euskal Herriko toki ederrenetarikoa Urbasa-Andiko parke naturala da. Nafarroako mendebaldean dago, eta izugarriko paisaiak dauzka: goi-lautadak, amildegiak, kobazuloak, iturburuak... *Para mi gusto uno de los mejores lugares de Euskal Herria es el Parque natural de Urbasa-Andia. Situado en el oeste navarro; tiene unas vistas espectaculares: llanadas en las alturas, barrancos, cuevas, nacedores...*

LA SELVA DE IRATI

Baso hau Europan oso garrantzitsua da, eta babestuta dago. Han, pago eta izei asko aurki ditzakegu, Irabia urtegia, eta, bide batzuk paseatzeko. Argazkiak ateratzeko ere oso ondo dago. *Esta selva es una zona protegida a nivel Europeo. Aquí podemos encontrar muchas hayas y abetos, el pantano de Irabia y algún camino para pasear. También está muy bien para sacar fotos.*

ELANTXOBE.

Itsasoa dauka, eta hortik bizi da: herri arrantzalea da. Kostaldeko ikuspegi bikaina ematen du. *Tiene mar y vive de él: es un pueblo pescador. La mayor peculiaridad del pueblo es la pendiente, todas sus calles son enpinadísimas.*



Lorena



Toño



Paula

GASTEIZKO ALDE ZAHARRA

Polita izateaz gain, aukera asko dituzu. Poteatzera joan zaitezke; Euskal Herriko pintxorik gozoenak jan ditzakezu. Erosketak egin nahi badituzu, aukerarik onena duzu. Bai udan bai neguan, gozatzeko ekitaldiak dituzu. Hau guztia giro on batean murgilduta.



KRIS

NACEDERO DEL UREDERRA

Urderra ibaia Urbasako parkean jaiotzen da, Bakedano herrian, Nafarroan. Ibilbide ikaragarri polita da; ibaiaren ur gardenak liluratuko zaitu. Familiarekin edota lagunekin eguna pasatzeko toki zoragarria. *El río Urederra nace en el parque natural de Urbasa, en el pueblo navarro de Bakedano; sus aguas cristalinas te embrujarán. Un lugar increíble para compartir con familiares y amigos.*

ARRIGORRIAGAKO UPO MENDIA.

Tontorretik ikusten den paisaia zoragarria da. *El paisaje que se divisa desde la cima es maravilloso.*



Natalia

ARABAR ERRIOXA

noski! Eskualde hau oso polita da. Leku asko daude bisitatzeko mahastien artean. Gainera, jendea oso alaia da, eta inportanteena ardoa da, oso ona da-eta. *Rioja Alavesa, ¡por supuesto! Esta comarca es muy bonita. Tiene muchos sitios para visitar entre viñedos. Además, la gente es muy alegre, y lo más importante es el vino, balorado por todo el que lo degusta.*



Alain

IZABA

Nafarroako herri txiki bat da. Neguan jende asko joan ohi da eskiatzera. Etxeak harrizkoak dira. *Es un pueblito de Navarra. En invierno va muchísima gente a esquiar. Las casas son de piedra.*

MUNDAKA

Txikitan Bizkaian bizi nintzen, eta gogoan dut gurasoekin sarri joaten nintzela. Hondartza txiki bat dauka eta oso herri lasaia da. Surf txapelketengatik ere ospetsua da Mundaka. *De pequeño vivía en Vizcaya, y recuerdo que solía ir a menudo con mis padres. Tiene una pequeña playa y es un pueblo muy tranquilo. Mundaka también tiene fama por los campeonatos de surf.*



Ama eta anaia Mundakan



Cristina

gure kuttunak.....

■ Esta página la dedicamos a recoger los lugares o rincones más queridos por nuestros/as colaboradores/as. Ellos/as mismos/as nos explicarán cómo llegar y por qué les resulta tan especial. En esta ocasión **Ramón, Alain y Miguel** nos llevan a...

San Bizente baseliza



Eltziegon zehar ibilbide polit bat egitea proposatzen dizuegu, San Bizente baselizarako ibilbidetxoa, hain zuzen.

Biasteriko gasolindegia hartuko dugu abiapuntu. Handik Elziegorako errepidea hartu, eta kilometro banaka batzuk egin ondoren, herriko sarreran dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa. Ondoren, bi jatexeren ondoan dagoen errotontatik abiatuko gara, **Lapuebla de Labarca** bidea



hartuta (hegoalderantz). Eskuinaldean errekatxoa ikusiko dugu, eta bestaldean **upeltegi zaharren auzoa** deritzana. Berehala **mahats-biltzailearen** estatuara iritsiko gara. Handik gora, bide aldapatsua dugu; oraingoan eskuineko bidea hartu behar da. Mahasti eta upeltegien artean igaro ostean, bidegurutze bat aurkituko dugu. Bertan, **arbendolondo** eder bat eta etxe baten hondakinak ikusiko ditugu; eskuineko bidea hartu, eta aurrera joko dugu. Bost minuturen buruan, muino batean, San Bizente baseliza agertuko zaigu. Azken aldapa igo, eta bertara iritsiko gara.

San Bizente baselizaren inguruan, antzinako herrixka bat zegoen, **San Andrés de La Ribera** izenekoa, hain zuzen. Honek, zalantzarik gabe, garrantzi handikoa Eltziegoko historian.

Ermita de San Vicente

Os proponemos un atractivo paseo por los alrededores de Elciego; concretamente a la ermita de San Vicente.

Tomaremos como punto de partida la gasolinera de **Laguardia**. Desde allí cogemos la carretera que lleva hasta Elciego, y después de unos pocos kilómetros dejaremos el coche en el aparcamiento que se encuentra en la entrada al pueblo. Después partiremos a pie desde la rotonda que se encuentra al lado de dos restaurantes cogiendo el camino hacia **Lapuebla de Labarca** (dirección sur). A la derecha veremos un arroyo, y a la derecha el **antiguo barrio de las bodegas**. Enseguida



llegaremos a la **estatua del vendimiador**. Desde allí tenemos un trecho empinado; tomaremos el camino de la derecha. Después de andar un rato entre viñedos y algunas bodegas, encontraremos un cruce. Allí hay un hermoso **almendro** y las ruinas de una antigua casa; cogeremos el camino de la derecha y seguiremos hacia adelante. Al cabo de unos cinco minutos veremos la ermita ubicada en un pequeño cerro. Última cuesta, y llegamos a la ermita.

En los alrededores de la ermita de San Vicente se hallaba el antiguo poblado de **San Andrés de La Ribera**. Éste, sin duda, es de gran importancia para la historia de Elciego.

euskaltzaleak.....

Esteban Urkiaga Basaraz, "Lauaxeta" (1905-1937)



Esteban Urkiaga, "Lauaxeta" nació en Laukiz en 1905 y vivió en Mungia. Después de estudiar latín y retórica en el colegio de los jesuitas de Durango, realizó estudios de sacerdocio en Loiola y Oña, pero antes de celebrar su primera misa, dejó el convento. En Loiola aprendió a amar al euskera y a la literatura junto al profesor vascófilo padre Estefanía y con sus amigos de la Academia Vasca, Zaitegi e Ibinagabeitia, entre otros. Durante aquella época, realizó traducciones de clásicos del latín. Tras dejar el convento, comenzó a trabajar en el diario nacionalista *Euzkadi*. En los inicios, fue colaborador de Orixe, y desde que éste se marchó a Oresa a escribir el poema *Euskaldunak*, responsable de la página en euskera.

Cuando surgió el Levantamiento de Franco en España, dejó todos sus quehaceres y se alistó en el Ejército Vasco. Como comandante trabajó en la organización de las milicias y en la actividad propagandística. Publicó la revista *Gudari* y el diario en euskara *Eguna*. Sumido en aquellas tareas, se encargó de ayudar a un periodista francés que quería hacer algunas fotografías tras el bombardeo de Gernika. Lauaxeta fue apresado por las tropas franquistas y llevado a Gasteiz. Le aplicaron la pena de muerte y fue fusilado. Escribió unas palabras conmovedoras mientras esperaba la muerte.

Ganó el primer premio en el *IDía de la Poesía* en 1930 con el poema *Maitale kutuna*. Al año siguiente publicó su primer libro de poemas: *Bide barriak*, renovando incluso la estética. Quería expresar en euskara la modernidad europea, renovar la temática y el lenguaje: amor, existencialismo, muerte. Surgieron discusiones entre los vascófilos por su libro, debido a las ideas modernas que planteaba.

*Urkiaga Esteban
Lauaxeta*

Esteban Urkiaga, "Lauaxeta" Laukizen jaio zen 1905ean eta Mungian bizi. Durangoko jesulagunen ikastetxean latina eta erretorika ikasi ondoren, abadetza-ikasketak egin zituen Loiolan eta Oñan, baina mezaberria eman baino lehenago utzi egin zuen komentua. Loiolan euskaltzale eta literaturazale zen, aita Estefanía irakasle euskaltzalearen eta Euskal Akademia osatzen zuten lagunekin, Zaitegi eta Ibinagabeitiarekin, besteak beste, Garai hartan latineko klasikoen itzulpenak egin zituen. Komentua utzi zuenean, *Euzkadi* egunkari nazionalistan hasi zen lanean. Hasieran Orixeren laguntzaile izan zen eta, hau Oresa, *Euskaldunak* poema idaztera, joan zenetik aurrera, euskal orrialdearen arduradun.

Espanian Francoren Altxamendua sortu zenean, zeregin guztiak alde batera utzi eta Eusko Gudarostean sartu zen. Komandante-graduarekin, milizien antolaketan eta propaganda-lanetan aritu zen. *Gudari* aldizkaria eta euskarazko *Eguna* egunkaria kaleratu zituen. Eginkizun horietan ari zela, Gernikako bonbardaketaren ondorioez argazkiak egin nahi zituen kazetari frantses bati laguntzera joan zen. Faxistek preso harrapatu eta Gasteizera eraman zuten Lauaxeta. Heriotza-zigorra ezarri eta fusilatu egin zuten. Heriotzaren zain zegoela idazki hunkigarriak idatzi zituen.

1930ean *I. Olerti-Eguneko* sari nagusia irabazi zuen *Maitale kutuna* poemarekin. Hurrengo urtean lehen poema-liburua argitaratu zuen: *Bide barriak*, estetika ere berrituz. Europako modernitatea euskaraz eman nahi zuen, gaia eta hizkuntza berritu: maitasuna, existentzialismoa, heriotza. Liburuak eztabaida sortu zuen euskaltzaleen artean planteatzen zituen ideia modernoak zirela eta.



curso 2012-2013 ikasturtea

reuniones matriculación – matrikulazio bilerak septiembre / iraila

EGUNA	LEKUA	HELBIDEA	ORDUA
10	Mendavia / Mendabia	Ciberteca	19:00
11	Oyón / Oion	Euskaltegia	19:00
12	Logroño	Escuela Oficial de Idiomas "El Fuero de Logroño" General San Jurjo, 4	19:00
14	Elvillar / Bilar	Ikastola	19:00
14	Lanciego / Lantziego	Ikastola	20:00
17	Viana	Centro Cultural Navarro Villoslada Kultura Etxea	19:00
18	Labastida / Bastida	Ikastola	19:00
19	Laguardia / Biasteri	Euskaltegia	19:00
20	Elciego / Eltziego	Kultura Etxea/Casa de Cultura	19:00
20	Lapuebla de Labarca	Ikastola	20:00
21	Samaniego	Ikastola	19:00



Euskara, errazago eta azkarrago
Euskara, más fácil y cómodo

www.ikanet.net

945 601 087 - 945 621 055 - errioxa@ikanet.net

euskaraba.com
arabako euskararen ataria



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

TESTUAK: Arabako Errioxako IKA ■ Ramón, Alain eta Miguel ■ hiru.com
ARGAZKIAK: Errioxako IKA ■ Alessandro Quisi (INTEF) ■ Alain Callejo ■ intxorta.org
ILUSTRAZIOAK: Mar Sáez, Instituto Nacional de Técnicas Educativas y de Formación del Profesorado (INTEF)